



GFI Norte-ko ELA sindikatu atala

29. alea
2016. Otsailaren 8

- © Autofinantziazten garelako. Horregatik askeak gara.
- © Politika egin barik politikak aldatu nahi dituzulako.
- © Batasunak indarra ematen duelako: **105.000 afiliatu.**
- © Helburuak borrokaren bitartez lortzen direla jakin badakigulako. ELAK afiliatuen kuoten %25 "erresistentzia-kutxara" bideratzen du, afiliatuei laguntza emateko greba kasuetan.




elagfi@gmail.com | elagfinorte@gfi.es | facebook.com/elagfinorte | facebook.com/ela.gfinorte.comunicados | facebook.com/ela.gfinorte.revista

Aplikazten dizkiguten hitzarmenen egoerari eta gure prekarizazioari buruz (VI. zatia)

Langileen laguntzarik ez dagoenean sindikatuen negoziatzeko ezintasunak "murrizketen negoziazioa" ekar dezake. ELA inoiz ez du horrelakoetan parte hartu nahi izan. Jarraian, GFI Norteko kontratuak sinatzeko erabiltzen diren hitzarmenen negoziazioen bilakaera aurkezten dugu.

Bulego eta Langeletako Hitzarmena ez berriztatzeak eroste-maila galtzea eragiten ari digu, izan ere, hitzarmen horrek duen KPIarekin lotutako urteroko soldata-gehikuntza (gutxieneko igoera) eta antzintasuna ere ez direlako aplikatzen. Bi hitzarmen artean (probintziala eta estatukoa) aurkitzen garenez **babesgabatasun-egoeran** gaude gure eskubideen aplikazioari dagokionez zeinetara eutsi behar garen ez jakiteagatik. Enpresak, jakina, bere onerako erabiltzen du egoera hau, bata edo bestea aplikatuz komeni zaion bezala: aparteko orduak (1*1,75 estatukoan baina 1*1 probintzialak ezartzen duen arabera ordaintzen du), prestakuntza (estatukoak heziketa-ustiapenagatik urteroko diru-laguntza begiesten du baina mila eragozpen jartzen du diru-laguntza hau emateko), antzintasuna (bietan dagoena baina 2014tik Gfi Norteko aplikatzen ez dena),... Gauden *linbo* honek soldata-eskala bikoitza ekarri du probintzialak estatukoak (kontratazio berriei aplikatutako hitzarmena) baino soldata oinarri handiagoak dituelako.



Apunte laboralak (I. zatia)

Bitxia da edozein lanbidetako estudio-plan berri guztiek ekonomia eta kontabilitateko oinarriko kontzeptuak edukitzea, baina inor ez da oroitzen sindikalismoari eta asoziazionismoari buruzko irakasgai bat gehitzeaz, ezta araudi laboralari buruzko oinarriko nozio batzuk ere. Horregatik eta behin eta berriro galdetzen dizkiguzuelako, oinarrikoak diren eta langile guztiek ezagutu eta menderatu behar genituzkeen zenbait kontzeptuei buruz, "faszikulukako" apunte hauek proposatzen dizkizuegu zuen erabilgarritasunerako izango direlakoan.

Hasieratik hasiko gara, funtsezko eta gutxienezko arauetatik, langile guztientzat definitutakoak, bere lan-jarduera zein den kontuan izan gabe. Hasiera hau Langileen Estatutua da; langileen oinarriko eskubideak zuzentzen dituen arau nagusi eta funtsezkoak jasotzen dituen dokumentua.

Igarri baduzu paragrafo bakarrean, "funtsezko arauak", "oinarrizko eskubideak", "gutxieneko", "nagusi", "funtsezko", ... hitzak erabili ditugu. Helburua langile guztien eskubideak eta betebeharrak arautzen saiatzea da, bere bizibidea, sektore ekonomikoa, erantzukizuneko edo espezializazio maila kontuan izan gabe. **Lan-mota guztietarako ezaugarri, eskubide eta betebeharrak komunak jasotzea du helburu.**

Hau da, **Langileen Estatutuan lan-harremanetako oinarrikoena erregistratzen da.**

1980ko martxoaren 10ean onartua eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratua izan zen. Martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege-Dekretuak aldatu zuen, hau da, **urte batzuk baditu eta lan-merkatuak harrezkero aldaketa anitzak jasan ditu.** TIC sektorean bizi dugun aldaketa laborala jarraitua aipatu gabe. 1980an imajinatzea ezinezko zen errealitate laboralak pairatzen ditugu gaur egun.

Zergatik aipaturiko estatutua? 1978 (data berriak ez direla ikusten dugu) konstituzio espainiarrak bere 35. artikuluan eskatzen duelako.

- Espainiar guztiek lan egiteko betebeharra dute eta lana izateko eskubidea, lanbide-aukera librea, lanaren bidezko sustapenera eta bere eta bere familiaren beharrak asetzeko ordaintze nahikora eskubidea dute ere, eta sexu-arrazoiengatik ezin da inolako diskriminaziorik egin.
- Legeak langileen estatutu bat doituko du.

Langileen Estatutuak lan-harremanen errealitate oso oinarriko eta erreza erakusten digu. Legeak gutxieneko gutxienean jasotzen du. Langileen Estatututik behera ez dago jada ezer, behintzat legeko eremuan. **Hain oinarrikoa da, gutxiagia dela.**

Guk atal sindikal moduan gehiago nahi dugula argi dago, oinarrikoegiak diren baldintza hauek hobetu behar ditugu eta, jakina, egunero lan egiten dugu helburu honekin, **gure beharrak kontuan hartzen dituen hitzarmen bategatik borroka eginez.**

Langileen Estatutua motz geratzen denez eta bizibide bakoitzak bere berezitasunak dituen gero, **hitzarmen kolektiboak sortzen dira**, Langileen Estatutuan jasotako baldintza laboralak zehazteko, enpresa jardueraren kokatzen den sektore ekonomikoa, beste gauza batzuen artean, kontuan hartuz.

Baina hitzarmen kolektiboarena, hurrengo faszikuluan erreparatuko dugu.